



Benito Lertxundiren kontzertua Udaberriren urteurrenaren harira

TOLOSA ▶ Oriotarrak emanaldia eskainiko du larunbatean 20:00etan
Leidorren; azken diskoko kantu berriak eta betiko kantuak abestuko ditu ▶ 4

ZIZURKIL ▶

Zaraterako
bidearen
konponketa
lanak egingo
ditu Udalak

131.142 euroko
inbertsioa egin du ▶ 7



Udalaren
2008ko
egutegiko
irabazleak,
erabakita

TOLOSA ▶ Maider Gaztelu-
mendiren *Uzturre* argazkiak
irabazi du Tolosa Gasa eta
Tolargik antolaturiko 2008ko
egutegiko lehiaketa. Sari beza-
la gasa eta argia doan izango
ditu urtebetez. 500 argazki
jaso dituzte. M. GAZTELMENDI ▶ 5

TOLOSA ▶

'Aitzol'-en
bizitza
gertuagotik
ezagutuz ▶ 2

IBARRA ▶

'Sua' filmaren azken
grabaketa egingo dute
igandean Azkaraten

Eneko Aritzaren Lagunak taldekoek
parte hartzeko deialdia egin dute ▶ 6

BIDEGOIAN ▶

Kultur
Astearen
«balantze
ona»

Udaletik «pozik»
azaldu dira ▶ 3

Kimetz

denda berria

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

EUSKARA ▶

Sustatzaile eta buruzagi

Jose Ariztimuño 'Aitzol' apaiz tolosarrak garrantzi handia izan zuen gerra aurreko euskal kulturaren eta politikan; frankistek duela 71 urte fusilatu zuten

JOXEMI SAIZAR

Gaurko egunean, duela 71 urte, gerraren hasieran, hil zuten Jose Ariztimuño Olaso *Aitzol* apaiz tolosarra. Zergatik? Euskal abertzaletasunaren ideologoa izateagatik. Batzuen ustez Sabino Aranaren oinordekoa zen. Gerraren hasieran Iparraldera joan behar izan zuen eta Bilbora zihoala *Galerna* itsasontzian Pasaian harrapatu, atxilotu eta fusilatu zuten. Berrogei urteko bizitzan lan ugari egin zuen euskara eta euskal kulturaren alde.

Aita tolosarra, Elosegi txapel fabrikako langilea, eta ama bilabonatarra zituen Jose Ariztimuño. Hamar senide izan zituen, horietako bost erlijioso eta bi jaioberritan hilak. Giro euskaldunean hazi zen eta lehen ikasketak Eskolapioetan eginda, Comillasera (Espainia) joan zen apaiz ikasketak egitera. Garai hartan euskararen kontrako sentimendua zegoen han, jazarpena jasan, espedientatu eta bidali egin zuten. Han ezagutu zuen Nikolas Ormaetxea *Orix*e eta, biak jeno bizikoak izanik, eztabaida asko izaten zituzten. Gasteizeko Seminarioan giro hobea aurkitu zuen, hantxe sortu baitzen Kardaberaz taldea: Jose Miguel Barandiaran, Manuel Lekuona, Jokin Zaitegi...

'Aitzol'-en iraultza

Apaiztu ondoren, misiolarienezako aldizkari batean hasi zen lanean. Beasaingo Garin auzoan zegoela gaixotu eta Donostiara joan behar izan zuen sendatzera, apaiz lanetatik liberatuta. Orduan hasi zen *Aitzolen* iraultza. Euskaltzaleak bazkuna sortu, Olerti egunak eta Bertsolari Txapelketak antolatzen hasi zen. *Yakintza* aldizkaria eta *El Dia* egunkaria sortu zue-nean hasi zen *Aitzol* goitizena erabiliz, bere bi abizenak elkartuz. Literatura, antzerkigintza, olerkigintza, pedagogia, nazioarte, soziolinguistika, gizartea ziren gehien erabilitako gaiak. *El Dia* Gipuzkoan gehien saltzen zen egunkaria izatera iritsi zela ikusita, eskuindarrek *El Diario Vasco* sortu zuten. *Euzkadi* eta *La tarde*-n ere kolaboratzen zuen.

Euskaldunengan bere izaeraren eta bere herriaren kultur ondarearen kontzientzia esnara-zi nahi zuen. Euskara pentsa-



Aitzol (aurrean eserita, ezkerretik hasita hirugarrena) bere garaiko bertsolari onenen artean. HITZA



Jose Ariztimuño 'Aitzol'. HITZA

molde kolektiboa sortzeko tresna bezala ikusten zuen. Eskolak euskaldundu nahi zituen eta elebitasun txikitandik lortzea nahi zuen: euskara gai afektiboetarako (erlijioa, historia, geografia) eta gaztelania ikasketa zientifikoarentzat. Antzerkia, poesia, euskara haur-rrengan, euskal eskola eta euskararen batasuna ziren bere idatzietako gaiak, gehienak gazteleeraz. Euskal irakurleak zaletu eta erakartzeko poesia ulertezinak baztertu eta kazetaritzako euskara sortzeko borrokatu zuen *Aitzolek*. *Lizardi* eta *Lauaxeta* olerkariekin eztabaida ugari izan zituen gai honetaz.

Politika eta sindikalgitza

Ariztimuño langilea eta oldar-korra zen, intuizio handikoa eta antolaketa-erako gaitasuna zuen, Antonio Maria Labaienek esaten zuenez, «langile nekae-



Aitzol (ezkerretik bigarrena) Euskal Idazleen biltzar batean Izaban. Jose Antonio Agirre lehendakaria ere tartean da. HITZA

zina zen, kazetari ona, izaera ausarta eta sutua zuen». Langile kristauen mugimendua bultzatu zuen, EAJren ideologiarekin bat egin eta nazionalismoaren ideologiaren oinarriak finkatzen jardun zuen. Bigarren Errepublikara garaian sindikatu solidarioak eta talde nazionalistak prestatzen aritu zen. Gizon polemikoa zen, eskuindar espainolistentzat gorria, ELAn ari zelako lanean, ezkertiarrentzat erreazionarioa. Politikan, Estatutuaren alde gogor jokatu zuen, batez ere Nafarroan. Jose Antonio Agirre, Manuel Irujo eta Mercedes Karreraekin mitinak ematen aritu zen.

Torturatua eta fusilatu

1936ko otsaileko hauteskunde-ndoren Espainiako egoera politikoa txartu egin zen, uztailen gerra piztu eta abuztuaren 2an Donostiatik erbestera jo zuen *Aitzolek*. Han ere babesik ez jaso ez zezan presionatu zuten aurkariak. Suetena lortzen saiatu zen euskaldunen neutralitatearen truke. Baionatik Bilbora zihoan *Galerna* itsasontzian harrapatu zuten urriaren 15ean Pasaia parean. Ondarretako kartzelara eraman, torturatu eta urriaren 17ean aske utzi zuten, garaiko dokumentuen arabera. Gauerdi horretan fusilatu zu-

DATA BATZUK ▶

- 1896. Tolosan jaio zen marboaren 18an.
- 1909. Comillaseko seminarioan sartu zen.
- 1922. Apaiz Gasteizen egin eta meza berria Tolosan eman zuen.
- 1924. Beasaingo Garin auzora destinatu zuten eta *Gure mixiolaria* aldizkarian hasi zen lanean.
- 1927. Euskaltzaleak elkartea sortu zuen.
- 1930. *El Dia* eta *Yakintza* aldizkariak sortu eta Olerki egunak antolatzen hasi zen beste batzuekin batera.
- 1931. *La muerte del euskera o los profetas de mal agüero* liburua idatzi zuen.
- 1935. Bertsolari egunak antolatzen hasi zen beste batzuekin batera. *La democracia en Euskadi* liburua idatzi zuen.
- 1936. Abuztuaren 2an Belokera joan behar izan zuen. Urriaren 15ean Bilbora abiatu zen itsasontziz, harrapatu, Ondarretako kartzelan torturatu eta 17an fusilatu zuten Hernaniko kanposantuan.

ten Hernaniko kanposantuan beste 191rekin batera, tartean 17 apaiz. Iñaki Egaña historiariak dioenez, «posible da» gorpua Cuelgamuros-era (Madrid) eramatea, Valle de los Caídos-era, frankistek hildako beste asko bezala, familiak ezer jakin gabe. Tesi hau egia izanez gero, bere gorpuzkinak diktadorearen ondoan egongo lirarteke gaur egun.

«Espainiar txarra»

Itzal handiko pertsonaia honek euskalgintza eta herrigintza landu zuen. Elkarrizketa maite zuen, Madrilekin harremanetan sakonduz akordioetara iritsi nahi zuen elebitasuna lortzeko. Europako herriek kultur alorrean egindakoa eta Kataluniako esperientzia ezagutzen zituen. Gerra hasi zenean EAJ eta karlisten arteko akordioa lortzen saiatu zen, frankistek harrapatu zuten arte. Garaiko prentsa eskuindarrek ez zuen asko maite: «Queda entre la redada de menor cuantía este pez gordo que es *Aitzol*, el tristemente célebre curita, energúmeno líder del nacionalismo separatista. Mal español, mal vasco y peor ministro de Dios. En *El Diario Vasco* lo conocíamos en toda su dimensión de hispanófobo furibundo».

BIDEGOIAN ▶ KULTURA



Marrazki lehiaketan 40 haur eta gazteko inguru izan ziren. Ondoren sariak banatu zizkieten. E. EZEIZA

XVIII. Kultur Asteko «balorazio ona» egin dute Udalekoek

Pello Zabalen hitzaldia izan da arrakastatsuen eta azoka eta marrazki lehiaketa espero zuten moduan ondo joan da

NEREA URBIZU

Bidegoiango XVIII. Kultur Astea bukatutzat, balantzea egin dute Udalean eta Juan Ugarte alkatearen hitzetan, «oso ona izan da». Ekitaldi guztiak egin ahal izan dituzte, baina, adibidez, Iñaki Alberdi auto gidariaren hitzaldia, «eguraldi txarra zegoela eta ez zuen autoa bertara eraman». Beraz, eguraldiak ez zuen egun guztietan lagundu.

Bestela, arrakasta gehien izan duena, «Pello Zabalen hitzaldia izan da». Jende asko hurbildu zen bertara, balio anitzeko gelara. Han amezketarako eguraldiak eta klimaz hitz egin zuten, ondo menperatzen

duen gaiak, hain zuzen. Jendeak interesa erakutsi zuen bertan.

«Beti errepikatzen ditugun ekintzetan ere arrakasta izan da, hala nola, igandeko azokan: jende asko hurbiltzen da honera, baita kanpoko ere». Egun berean txakolina eta sagardo dastaketa izan ziren sardinekin batera. Janaria dagoen lekuetan beti jendea biltzen da: Bidegoian ere gertatu zen, jendea bildu zela. «Jakiekin jendea erakartzea erraza da». Artisauek egindako produktuak zeuden ikusgai nahiz salgai.

Bidegoiango Kontzeju jate-txean afaria zegoen ostiralean, Iñaki Alberdi auto-gidaria

egin zen egunean bertan, baina Iñaki Alberdi bera eta udal-letxe ordezkaririk ez ziren bertan. «Ez zen inor etorri afarira. Gu bakarrik egin ginen».

Haurren eguna

Larunbata haurren eguna izan zen, marrazki lehiaketa, pailazoak eta txokolatea baitzuden: ekitaldi aproposak beraien izenak. «Marrazki lehiaketa 40-45 ume elkartu ziren». Pox-polo eta Mokolorekin ere jendea bildu zen, Bertan, *Run Run* saioa eskaini zuten.

Aurtengoa ikusita datorren urtean ere egingo dute, XIX. Kultur Astea, beraz.

IKAZTEGIETA ▶ AGENDA 21

Bigarren herri batzarra etzi 20:00etan izango da

Herritarren parte-hartzea garrantzitsua da, erabakiak eta nahiak kontuan hartzeko

ERREDAKZIOA

Maiatzeko hauteskundeak pasa eta udal berria martxan jarri ondoren, Ikaztegieta Udalak Tokiko Agenda 21 prozesuari berriz heldu dio. Horregatik etzi 20:00etan batzarra egingo dute.

2006an Diagnostikoko herri batzarra burutu zen. Geroztik, eta herritarren ekarpenak abiapuntutzat hartuta, Ikaztegieta ekintza plana definitzen aritu dira. Plan horretan, herrian egin litezkeen ekintza mordoak jaso dute, baina guztiak aurrera eramatea zaila da Ikaztegieta bezalako udalerririk txiki batentzat. Horregatik beharrezkoa dugu herritarrentzat lehentasunezkoak diren ekintzak zein diren jakitea.

Honetarako, etzi 20:00etan Herri batzarra egingo dute liburategian, Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela eta

osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkezteko eta herritar guztion artean antzeman diren hutsuneak konponbideak bilatzen saiatzeko.

Ekintza plan horretan mota guztietako ekintzak atera dira: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... Hau elkarriketa bidez lortutako herritarren iritzia, eta herri batzarrean esandakoak ere kontuan hartuz osatu dute. Ekintza plana erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu.

Bilera aurretik ekintza plana irakurri nahi duenak, aurrera ikusgai izango da Ikaztegieta bezalako udalerririk txiki batentzat. Horregatik beharrezkoa dugu herritarrentzat lehentasunezkoak diren ekintzak zein diren jakitea.

ALBIZTUR ▶

Sexua eta zahartzaroaz bihar ariko dira

Bihar, Albizturko Kultur Etxean hitzaldi bat izango da. 17:00etatik aurrera izango da eta, kasu honetan, zahartzaroa eta sexua lotuko dituzten gaiak jorratuko dituzte. Aduite batek emango du hitzaldia eta jubilatuei zuzendua badago ere, interesgarria da heldu guztientzat, bertan urte batzuen baitan bizi beharko duten egoeraz hitz egin eta hainbat zalantza argitu baitaitezke bertan egongo den adituari esker.

AMEZKETA ▶

Sakelekoa erabiltzen ikasteko klaseak

Telefono mugikorra (mobila) nola erabiltzen den ikasteko adinduentzako ikastaro bat dago Amezketan. Kutzako bezeroa izan behar da derri-gorrez, 3 orduko ikastaroa litzateke eta ordaindu behar dena, 3 euro bakoitzak. Interea dutenek izena udal-terrean eman behar dute jubilatuen bazkarirako eta meriendarako izen-ematearekin batera, hilaren 24a baino lehen (Jubilatuaren eguna hilaren 28an da).



Higiezinaren Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berria, 13 etxebizitza 2 eta 3 logelakoak trastelekuarekin, 174.500 eurotik aurrera.

Altoz. Salgai eraberritzeko etxea 3 etxebizitzetarako, 10.000 m²ko lursailarekin.

Altoz. 75m²ko bi solairuko borda eta 10.000 m²ko lursaila.

Anoeta. Hartziko baserrian

90m²ko etxebizitza. Berritzeko.

Betelu. Hiru logelako etxebizitza.

Egongela, sukalde, bi bainugela,

terrazza eta altzariekin. Egoera ezin hobean.

Ibarra. Etxebizitza salgai, 3 logela, sukalde, berogailua eta igogailuarekin.

Ibarra. Bi logelako etxebizitza.

Eraberritua. 258.435 euro.

Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru logelako. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.

Tolosa. Belatan, garaje itxiak salgai, 25 m²koetatik gora.

Hastear daude.

Tolosa. Errementari kalean, 3.

solairuan, hiru gelakoa.

Eraberritua.

Tolosa. Aldaba auzoan, 3 solairuko

etxe atxikia, lursailarekin.

297.000 euro.

Tolosa. Errementari kalean, 62

m²ko etxebizitza 5. solairuan, 3

logelakoa. Garajea aukeran.

Tolosa. Berazubín, eraberrituriko

etxebizitza, kanpoaldera ikuspegi

ederrak.

Tolosa. Bialaren ondoan, 50 m²ko

eraberritutako etxebizitza.

50 metro karratuko garaje

handia dauka.

Tolosa. Zumalakarregi kalean,

etxebizitzak 1. eta 4. solairuan.

Tolosa. Larramendi kalean, pisu

altua, igogailuarekin, egoera

bikinean, garajea eta

trasteleku aukeran.

Tolosa. Ugaran Goena, baserria

eraberritzeko. 240 m²ko solairua.

Tolosaldea. Baserria 10.000

m²ko lursailarekin, eraberritzeko.

TOLOSA ▶ KULTURA

Benito Lertxundiren ahots sakona entzungai, Leidorren

Udaberri dantza taldearen urteurren ospakizunen baitan egingo dute larunbat honetan kontzertua, 20:00etan

ESTI EZEIZA

Udaberri dantza taldearen 50. urteurrenaren ospakizuneko ekitaldien baitan, Benito Lertxundi izango da Tolosan. Musikari oriotarrak bere 40 urteko ibilbideko kantu zahar nahiz berriak eskainiko ditu larunbateko kontzertuan. Emañaldia 20:00etan izango da, Leidor antzokian.

Hilaren 20ko saioan, 40 urtez ikasten egonak bere azken laneko abestiak joko ditu. Besteak beste, entzun ahal izango dira, *Udazken koloretan*, *Itsa-soari begira*, *Zergatik utzi kantatzeari* eta *Nere herriko neskatxa maite* bezalako kantu ezagunak.

40 urtez ikasten egonak 2005eko martxoaren 3an Gernikako Lizeo Aretoan eta martxoaren 11n Tolosako Leidor aretoan zuzenean grabatua izan zen. Bertan, musikari oso ezagunek hartu zuten parte: Juanxo Zeberio (pianoa, sintetizadorea), Fernando Ederra (baxu elektrikoa), Pello Ramirez (biolontxeloa eta akordeoia); Kutxo Otxoa de Eribe (biolina); Joxe Mari Irastorza (flauta eta xirula); Gurutz Bikuña (gitarra elektrikoa), Olatz Zugasti (harpa, sintetizadoreak, ahotsa), Angel Unzu (gitarra akustikoa, bouzouki, perkusioak).



Benito Lertxundi, kontzertuetako batean. HITZA

40 urtez musika munduan

Benito Lertxundi oriotarrak 1971n, 29 urte zituela kaleratu zuen bere lehendabiziko disko luzea, *Benito Lertxundi* izenburupean. Single bilketa zen berez, gitarra hutsez abesten zituen bere hasierako borroka eta maitasun kantak, herrikoiak eta sortuak nahasturik. Dena den, lehendagotik, 1965 urte inguruan, *Ez Dok Amairu* mugimendua mamitzen: han hasi zen. Bertan ziren Artze anaiak, Jose Angel Irigarai,

Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Julen Lekuona, Laboa bera... eta Oteizaren itzal luzea, euskal artea berritu eta gizartea astindu nahi zituen oldar hartan. Ikastoki eta esperimendu leku aparta izan zen hura, eta, 1972 aldera desegin bazen ere, ordurako utzia zuen hazia Benito Lertxundirengan.

Egun, Euskal Herriko izen handienetako musikaria da. 14 disko kaleratuak ditu dagoneko Lertxundik. Horrez gain, beste hainbat musikariren lanetan ere hartu du parte.

TOLOSA ▶

Boluntariotza ikastaroan izen-ematea

Lahar, Eskua-hartze Psikosozialerako Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak antolatuta, adinekoei laguntzeko boluntariotza ikastaroa izango da azaroaren 12tik 16ra. Saioak Gizarte zentruan, 17:00etatik 20:00etara bitartekoak izango dira. Hizlaria Izarne Lizaso psikologoa izango da. Izen-ematea 663 05 72 23ra deituta egin daiteke.

TOLOSA ▶

Gaszteentzako aldizkari elektronikoa

Gaszte informazio bulegoak astero aldizkari elektronikoa osatzen du. Tolosan, gaszteentzat sortzen diren berriekin. Hau dela-eta buletinaren harpidetza eskaini nahi du gaszte bulegoak. Aldizkari honetan gaszteek beraien berri ere eman ahal izango dute. Horretarako bertan aipatzen den helbide elektronikora bidali gauzak, eta interesgarria dela baderitzote, aldizkari elektronikoa azalduko da informazioa.

IKAZTEGIETA ▶

'Zuk zuk Jaunaren alfabetoa' etzi

Etzi antzerki saioa izango da Ikaztegieta. Irrintzi antzerki taldearen *Zuk zuk Jaunaren alfabetoa* izango da ikusgai kiroldegian. Galtzaundi euskara taldeak antolatutako ekitaldia 17:30ean hasiko da.

TOLOSA ▶

'La soledad' filma ikusgai zine-forumean

Bihar, zine-forumean Jaime Rosalesen *La soledad* filma izango da ikusgai. Ohi bezala, lehen emanaldia 17:45ean izango da, eta bigarrena 21:45ean. «Banaka zein taldean, gizakiak bakarrik gauden». Inork sahiestu ezin duen esperientzia existentsial ikaragarri horri buruzko hausnarketa egiten du Rosalesek filma honetan. Formari dagokionez, arriskutsua den zinearen alde egiten du zuzendariak. Besteak beste, Cannesen kritikaren txaloak jaso zituen.

GIZARTEA ▶

Arantxen 5. topaketa Arantzazun

Hilaren 28an Euskal Herri osotik etorritako Arantxen 5. topaketa ospatuko dute Arantzazun. Lehenengoa 1956ko uztailearen 15an ospatu zuten, Basilika berria inauguratzean ospatu zen Jubileo urtean. Batzar horretan 400 Arantxa bildu ziren Arantzazun. Aurtengo ospakizuneari, lehendabizi meza izango da Basilikan, ondoren Arantxen argazkia aterako dute, eta segidan bazkaria, Sindika jatetxean. Bazkalostean opariak banatuko dira parte-hartzaileen artean.



OSTIRALA
URRIAK 19-20:30
ILLUNBE

hitza Harpidedunen txokoa

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK

Bruesa-GBC / Ford Burgos
saskibaloit taldeen arteko partidarako
lau sarrera pare zozketatuko ditu!

Parte hartzeko,
deitu zenbaki
honetara:
943 65 56 95

Leidorren Urriak 20, larunbata 20:00etan izango den
Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak
zozketatuko ditugu ere!

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



GIZARTEA ▶

Maider Gaztelumendi 2008ko egutegiko lehiaketako irabazlea


Tolosa Gasa eta Tolargik antolaturiko lehiaketan urtebeteko gasa eta argia jasoko du sari bezala irabazle suertatu denak

IÑIGO TERRADILLOS

2008ko Tolosako Udalaren egutegian azalduko diren argazkiak, aukeratuta daude dagoeneko. Izan ere, horretarako, urtero bezala, Tolosa Gasa eta Tolargik argazki lehiaketa antolatu dute, eta aukeratu dituzte argazki irabazlea, hau da, azalean joango den argazkia, bai eta, 12 hilabeteetako orriak beteko dituztenak ere. Maidar Gaztelumendiren *Uzturre* ar-

gazkiak irabazi du aurtengo lehiaketa, beraz, urtebeteko argia eta gasa doan izango ditu. 12 finalistek, berriz, urtebeteko argia edota gasa doan izango dute.

Hauek izan dira 12 finalistak: Idoia Zabaleta, Migel Uranga, Miren Atxaga, Migel Cortes, Jose Antonio Abaigar, Iker Gereñu, Asun Prada, Diego Consuegra, Rafael Civico, Nekane Eizagirre eta Ion Azpiroz eta Xabier Zeberio.



Urtarrila. *Izaskun igoera*. MAIDER GAZTELUMENDI



Otsaila. *Iurramendi ibitokia*. IDOIA ZABALETA



Martxoa. *Urtaroak Uzturren*. MIGEL URANGA



Apirila. *Oria ibaia*. MIREN ATXAGA



Maiatza. *Urkizu*. MIGEL CORTES




Ekaina. *San Blas auzoa*. JOSE ANTONIO ABAIGAR



Uztaila. *Artzaienea*. IKER GEREÑU



Abuztua. *Elkano kalea*. ASUN PRADA




Iraila. *Tomatea eta eskua*. DIEGO CONSUEGRA



Urria. *Arostegieta kalea*. RAFAEL CIVICO



Azaroa. *Misterioa*. NEKANE EIZAGIRRE & ION AZPIROZ



Abendua. *Errege bezpera Kabalgata*. XABIER ZEBERIO

KULTURA ▶

'Sua' filmaren azken grabaketan parte hartzeko aukera

Eneko Aritzaren Lagunak taldeak hilaren 21ean egun pasa antolatu du Azkaraten 'Sua' pelikula aitzakitzat hartuta



Oraingoan oinezko soldaduak behar dituzte grabaketarako Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kideek. HITZA

ASIER IMAZ

Eneko Aritzaren Lagunak Kultur Elkartek (EAL) hilaren 21erako, iganderako, deialdi zabala egin du. Azkarateko (Nafarroa) plazan 10:00etan geratu dira elkarteko kideak. *Sua* pelikulako azken eszena «garrantzitsua» grabatzeko asmoz.

Taldeko kideen esanetan, «azken grabaketa handi eta irekia egin behar dugu Azkaraten igandean. Ahalik eta jende gehien bildu nahi dugu bertan, filman soldadu edo inkisizioaren milizia lanak egiteko. Ber-

din dio neska edo mutil, agure edo haur izan, joaten den guztiak parte hartuko baitu. Horregatik, Nafarroa Oinezera ez dihoan guztia Azkaraten bildu nahi dugu».

Igandeko egitasmoa

Asteburu guztian «jo eta su» lanean ariko dira Azkaraten EALko kideak. Hilaren 21ean, 10:00etan elkartuko dira herriko plazan. Bertan, hurbiltzen diren balizko aktore guztiak soldadu modura jantzi eta inguruko soro batetara eraman-go dituzte, bertan grabaketei

hasera emateko. Goizeko lanak burutu ondoren, bazkaltzeko geldialdia egingo dute, «jana eta edana Eneko Aritzaren kontu joango da beti bezala».

Sua luzemetraian, 1609. urtean Lapurdin gertatutako historia kontatzen da. Pierre de Lancre inkisidorearen etorrera aitzakitzat hartuta, bertako jauntxoek jokaera eta herritarren erantzuna azaltzen da. Igandean grabatuko duten eszenan berriz, pelikulako protagonistak soro batean lanean daudela, milizia agertuko zaie, inkisizioaren izenean atxilotuak izango direla esanaz.

OREXA ▶ GIZARTEA

Kontsumoa eta nagusien inguruko zikloa abian

'Elikadura eta nutrizioa' aztertuko dituzte gaur 17:00etan jardunaldien barnean

A. IMAZ

Uli Mankomunitateak antolatu eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako kontsumoa eta nagusien inguruko zikloa burutzen ari da Orexan. Herenegun hasi ziren jardunaldiak eta lehen hitzaldian, *Ura eta elektrizitatea. Kontsumoa eta aurreztea* gaiaren inguruan aritu ziren. Zikloa etzi amaituko da.

Gaur 17:00etan, *Elikadura eta nutrizioa* izenburupean, hitzaldia egongo da. Biharko berriz, formakuntza ikasgela antolatu dute gai eta ordu berarekin. Azken egunean, etzi, 09:00etan Giezberrira irteera egingo dute. Parte hartu nahi

duenak edo informazio gehiago nahi duenak, Uli Mankomunitateko telefonora deitu beharko du, 943 68 22 28 zenbakira hain zuzen ere.

Antolatzaileek herritarrek gonbidatu nahi izan dituzte jardunaldi hauetan parte hartzera, «nahiz eta hitzaldi hauek hirugarren adinekoei zuzenduak izan, herritar guztiak gonbidatuta zaudete; zuen interesekoak izan daitezkeela uste dugu eta gainera hitzaldiak formakuntza ikasgeletaz lagundurik egongo dira». Azkenik, irteerarako alde zuretik izena ematea oso garrantzitsua dela jakinarazi dute.

BERASTEGI ▶



Pirritx, Mari Motots eta Porrotx pailazoak Berastegi bidean. HITZA

Pailazo ikuskizuna hilaren 20ean

Pirritx eta Porrotx pailazoan *Mari Motots* ikuskizuna izango da ikusgai Berastegiko pilotalekuan hilaren 20an, larunbatean, arratsaldeko 17:00etan. Pailazo ospetsuen ikuskizunerako sarrerak salgai izango dira Tolosako Galtzaundin eta Berastegiko Urepele elkartean eta udaletxean.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ASTEASU ▶

Haurrentzako antzerkia gaur zine aretoan

Asteasuko Kultur Jardunaldiak gaur arratsaldean hasiko dira. Lehenengo ekitaldia haurrentzako antzerkia izango da udaletxeko zine aretoan. Irrintzi taldeak *Zuk, zuk jaunaren alfabeto berria* obra emango du, 18:30ean. Bernardo Atxaga idazle asteasuarrak idatzitako testu batetik egokitutako antzezlan da emango dutena.

ANOETA ▶

Jone abeslariaren bigarren lana kalean, etzi

Bonberenea Ekintzak-ek argitalpen berri bat aurkeztuko du, etzi, Jone abeslari anoetarraren disko berria hain zuzen ere. *Kateak* izeneko bere bigarren argitalpen hau hamaika kantuz dago osatua eta Bonbereneako grabazio estudioan grabatu zuten.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebexa: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ AZPIEGITURAK

Udalak Zaraterako bidearen konponketa lanak egingo ditu

131.142 euroko inbertsio egingo du, «baserrietarako bideak hobetzeko asmoz»

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udala Zaratera doan bidearen konponketa-lanak egiten hastera doa eta lan horretarako 131.142 euroko inbertsioa egingo du. Gaur egun egoera txarrean dagoen lurzoru konpontzea izango da jarduketa horren helburua. Udaletik zehaztu dutenez, «herriko goialdeko baserrietarako bidea hobetzeko asmoz betiere».

Plazatik atera eta, San Millan baserriaren ingurutik abiatzen da Zaratera doan bidea. Zizurkil Goiko baserrikoek erabiltzen dutena batez ere. Gaur egun bide hori Azkarate baserri-raino asfaltatua dago. Oraingo honetan Udalak gunehorretatik Illaratroetako ingurura arte, Motzane deituriko ingurura arteko 1.358 metroko bide-zatia konpontzea aurreikusiko du.

Bidean dauden zuloak konponduz hasiko dituzte lanak, eta ondoren birrindutako harri naturalaz lorturiko konposatuarekin berdindu eta leunduko da zorua. Horren ostean,



Zaratera doan bidean, besteak beste, zuloak konponduko ditu Udalak. I. GARCIA

best zentimetro lodierako aglomeratu-geruzarekin zolatuko dute bidea. Bestalde, urak ondo bideratzeko, lurzoruari %2ko erori txiki bat ematea naturalaz lorturiko konposatuarekin berdindu eta leundu-

Landa-bideen berrikuntza planak aurrera jarraituko du

datorren urtean, elizaren atzetik Abeletxe aldera ateratzen den bidean jarduten denean. Udalak 125.000 euroko partida bat xedatuko du lan horiek egiteko.

Proiektu horretan areka berriak eta harri-lubeta berri bat

egitea aurreikusten dute. Hala ere, bide osoa zolatzea eta Handi baserriaren inguruan zurezko segurtasun hesiak jarriko dituzte. Horrez gain, gunehori guztia behar den bezala seinaleztatzea jasotzen dute proiektuan.

AMASA ▶ KULTURA

Cuerdoren Jordaniako bidaia, bihar Kultur Etxean

IMANOL GARCIA

Angel Cuervo bidaiari tolosarrak *Jordania zaldiz Arabiako Lawrencezen bidetik* proiektioa emango du bihar, 19:30ean, Amasako Kultur Etxean. Proiektioaren ondoren, solasaldia eta lancha antolatuko dituzte.

Cuerdok Ekialde Hurbilari buruz zuen jakinmina asetzeko egin zuen bidaia. «Aspalditik nengoen kezkatuta Ekialde Hurbilean dauden albiste eta gatazkei buruz. Horren zergatira nahi nuen jo». Horretarako bertako historia arakatzen hasi zen eta ikusi zuen azken mendean «erabateko aldaketak eman direla, eta aldaketa horiek markatu zituenetako bat Lawrence de Arabia izan zela». Pertsonaia mitikoa dela dio Cuerdok: «Ez dago garbi zer zen: espia bat, askatasunaren alde egin zuen borrokalaria



Angel Cuervo, alokatu zuen zaldiarekin, Jordanian. HITZA

bat... Jordaniara abiatu nintzen Lawrencezen pausoen atzetik. Petran alokatu nuen zaldi bat eta Nemo mendiraino joan nintzen, 350 kilometro zaldi gainean».

Bidaia zaldian egitearen asmoa Lawrencezen pausok geratuagotik jarraitzeko izan zen. «Lawrence lurralde horietan

zaldiarekin eta gameluarekin ibili zen. Horrez gain, bertako jendearekin, beduinoekin, harreman bat lortu nahi nuen». Errepideetatik kanpora gelditzen diren lekuetan daude beduinoak eta «errepideak ahaztu eta belardien bila abiatu nintzen, zaldiak berak jateko hori behar zuelako», dio Cuerdok.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Begiradak. Gai zehatz bati buruz HITZAK argitaratu dituen artikulu bilduma aurki daiteke *Begiradak* sailean.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Maite Frankoren ipuin kontaketa Anoetako Udal Liburutegian 18:00etan HH2 eta HH3ko ikasleentzat.

Asteasu. Udaletzeko zine aretoa 18:30etik aurrera eta Irrintzi taldearen eskutik haur antzerkia izango da: Bernard Atxagaren *Zuk, zuk jaunaren alfabeto berria*.

Berastegi. Gaztainondo elkarteak Garesera ibilaldia antolatu du urriaren 26an. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Ikaztegieta. Urriaren 21ean Vianan ospatuko den Nafarroa Oinez 2007ra joateko autobusa antolatuko du Ikaztegieta Udalak. Izena udal bulegoetan eman dezakete interesatuek, 5 eurotan.

Larraul. Aiztondo bailarako herritarrak antolatuta, Larraulgo lurretik barrena ingurua ezagutzeko mendi ibilaldia, hilaren 28an. Argibide gehiago, 943 693930 zenbakian.

Orea. *Elikadura eta nutrizioa* izenburuko hitzaldia eskainiko da Orea Kontsuko ganbaran 17:00etatik aurrera.

Tolosa. Poto Gorrotxategi eta Belen Eguzkizaren *Kanadako glaziaren parke nazionaletik ibilbidea* diaporama eskainiko dute San Esteban auzoan 20:00etan.

Tolosa. San Pelaio-Balmaseda (Bizkaia) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak igande honetarako. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 6) edo 943 65 27 89 telefono zenbakian.

Villabona. La Demanda mendizerrara irteera antolatu du Aizkardi elkarteak iganderako: Azarrullatik abiatu, San Lorenzo (2.271m) igo eta Ezkarayen bukatu. 22 km dira eta sei ordu t, erdi kalkulatu dute. Izen-ematea, 943 694458 telefono zenbakian (Joxanetaz galdetu) edota elkartearen.

Zizurkil. Zizurkil Goiko Iriarte Etxean asteazkeneko biltzen dira kantu jiran taldekoak. 19:30etik aurrera elkartu eta euskal kantuak



Alpino Uzturreren mendi irteera igandean

TOLOSA ▶ Urtaro polita izan ohi da udazkena mendiak bisitatzeko. Kolore hori-marroiak estaltzen ditu zuhaitzak eta eta tontorrek ikuspegi ederrak eskaintzen dituzte. Alpino Uzturre elkarteak ere aprobeztatu nahi izan du sasoi hau igandean honetan, urriaren 21a, irteera bat antolatzeko. Kasu honetan, Bizkaia, Kantabria (Espainia) eta Burgos (Espainia) arteko parajeak bisitatu dituzte. Enkarterriak eta Ordunte—irudian—mendizerra ezagutzeko aukera izango dute. Irteera 07:00etan izango da Gorosabeletik. San Pelaiotik abiatuta, Kolutza (879 m.) eta Zalama (1.342 m.) mendiak igoko dituzte. Zazpi orduko ibilaldia izango dela aurreikusitako dute antolatzaileek. Gora-behera handiena hasiera izango da (400-500 m.) gero gainez-gain ibiltzeko. Izena Alpino Uzturre elkartearen bertan eman daiteke (Gudari kale, 5-943 652789) 20:00etatik 21:00etara. HITZA

ikasten eta abesten aritzen dira. Ateak irekita dituzte nahi duenarentzat.

Pequeña Miss Sunshine filma 22:00etan, San Esteban Kultur Astearen baitan.

Jose Manuel: la mula y el televisor; Gotica a gotica, Al compas del pilon, Fidel, el hombre de las cucharitas eta Casas en la pantalla film laburrak emango dituzte hurrenez hurren Tolosako

ZINEMA

Tolosa. San Esteban auzoan

Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Alegia. Rufino de Toro margolariaren lanak daude Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai.

Ibarra. San Bartolome jaietako argazki-erakusketa ikusi ahal izango da Benito Izagirre kultur etxean asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara bitarte (asteburuetan ibitxia egongo da).

Tolosa. Calcuta Ondoan elkarteak antolatutako erakusketa Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara (asteburuetan ibitxia).

Villabona. *Emakume ikusezina* erakusketa Villabonako Gurea aretoa, Senegalgo emakumaren paperari buruz.

Tolosa. *Ipuinartean II* Ereite elkarte multikulturalaren erakusketa izango da ikusgai Arburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
Leitza. Campos, M. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza **TOLOSAN** Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza **LEITZAN** Udaletzeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...